



LABORAL KUTXA TALDEKO **JASANGARRITASUN- POLITIKA**

**MANTENTZE-LANEN ARDURA
DUEN ZUZENDARITZA**

Jasangarritasun Bulegoa

**ONARTZEKO ARDURA DUTEN
ORGANOAK**

Kontseilu Errektorea

Aldez aurretik, honek baliozkotu behar du:

Jasangarritasun Batzordea

**BERRIKUSPENEN
PERIODIKOTASUNA¹**

Aldian behin berrikusiko da, eta, aldaketarik proposatuz gero, 2. atalean jasotako organoek onartu beharko dute.

**AZKEN BERRIKUSPENAREN
DATA**

2022ko otsaila

BERTSIOEN KONTROLA

DATA

Deskribapena

2021-12-15

LABORAL Kutxa Taldeko politika sortzea

2022-0

LABORAL Kutxako Jasangarritasun Batzordean aurkeztea

2022-02-28

Kontseilu Errektorean aurkeztea eta hark onestea

¹ Horrez gain, inplikaturako areek dokumentuaren atal jakin bat berrikusteko eska dezakete. Kasu horretan, Jasangarritasun Bulegoa arduratuko da eskatutako aldaketak aztertzeaz, politika aldatzeaz eta dagokien organoei aurkezteaz, aldaketak baliozta ditzaten.

EDUKIEN AURKIBIDEA

1. SARRERA.	
HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA	4
1.1. Politikaren xedea	4
1.2. Aplikazio-eremua. Erakunde lotuak	5
1.3. Politikaren gobernantza	6
2. ERREFERENTZIA-ESPARRUA ETA PRINTZPIO OROKORRAK	7
2.1. Erreferentzia-esparrua	7
2.2. Jasangarritasunaren printzipio orokorrak	7
2.3. Jasangarritasunaren analisi estrategikoa eta epe luzekoa	8
3. JASANGARRITASUNAREN ARLOKO JARDUKETA-ESPARRUA	9
3.1. Interes-taldeen gestioa	9
3.2. Jasangarritasunaren arloko jarduketa-guneak	11
4. GOBERNU KORPORATIBOA: ZEREGINAK ETA ERANTZUKIZUNAK	13
4.1. Kontseilu Errektorea	13
4.2. Arrisku Batzordea (jasangarritasun-arriskuen gestioa)	14
4.3. Jasangarritasun Batzordea	14
4.4. Jasangarritasun-taldea	16
4.5. Jasangarritasun Bulegoa	16
4.6. Jasangarritasunari buruzko informazioa eta txostena	17

1. SARRERA. HELBURUA ETA APLIKAZIO-EREMUA

Ekonomia jasangarria izan dadin beharrezko neurriak hartzea arriskuak eta aukerak sortzen ari da, eta horrek ikuskatzaileen, erregulatzaileen, banku zentralen eta beste interes-talde batzuen arreta piztu du. Hori dela eta, jasangarritasunarekin lotutako arriskuen eta finantza-aukeren analisia sartzen ari dira batzuk eta besteak euren lan-agendetan. Gainera, agerian geratu da jasangarritasunaren ondoriozko erronkek aurrekaririk gabeko aldaketak dakartzatela erakunde guztientzat, estandar berrietara egokitzeko.

LABORAL Kutxa Taldea erronka horien jakitun da, eta eskura dituen baliabideak eta bitartekoak erabiltzen ari da egoera berri horretara moldatze aldera. Hasiera-hasieratik eta kreditu-kooperatiba denez gero, kudeaketa etikoa, banku-jarduerak gizartean duen eraginarekiko ardura, korporazioaren gobernu ona eta ingurumenaren babesa izan dira LABORAL Kutxaren lehentasunak.

Finantza-sistema jasangarri baterantz aurrera egiteko, Taldeak konpromiso sendoa du Nazio Batuen Banku-jarduera Arduratsuen Printzipioetan eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuetan zehaztutako printzipioekin.

Horren ondorioz, Taldeak jasangarritasun-politika hau (aurrerantzean, Politika) onartu du, esparru horretan zer ikuspegi izango duen zehazteko, betiere bere xedearekin, ikuspegiarekin eta balioekin bat etorrita.

1.1. Politikaren xedea

Politika honetan, LABORAL Kutxa Taldeak jasangarritasunaren arloan jarduteko aintzat hartu behar dituen oinarrizko printzipioak zehaztu eta ezartzen dira. Zehazki, hauek dira Politikaren helburuak:

- Ekonomia-eredu jasangarria lortzeko bidean **Taldeak gizartearekin eta bere interes-taldeekin duen lankidetzakonpromisoa eta inplikazio-maila** nabarmentzea.
- **Jasangarritasun-estrategia arautuko duten printzipioak** ezartzea, epe luzeko ikuspegiarekin. Helburua da interes-taldeentzat ahalik eta baliorik handiena sortzea eta ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuak eta -aukerak eraginkortasunez kudeatzea.

Politika honen ondoreetarako, jasangarritasuna lortuko bada, ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak (IGG irizpideak) sartu behar dira. Europan², hauek dira irizpide bakoitza osatzen duten faktore nagusiak:

- **Ingurumen-faktorea:** enpresa edo gobernu batek klima-aldaketaren arloan egiten duen ekarpena barne hartzen duten faktoreak, hala nola, berotegi-efektua eragiten duten gasen isurtzeak, energiaren erabilera eta eraginkortasuna, ura, airea, lurzoruaren erabilera eta kudeaketa, lurzoruaren degradazioa, desertifikazioa, lurzoruaren zigilatzea, hondakinen kudeaketa, biodibertsitatea eta ekosistemen babesa.

² 2020/852 EB Erregelamendua, inbertsio jasangarria ahalbidetzeko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta 2019/2088 EB Erregelamendua aldatzen duena, eta EBaren RTS Proiektua, 3. zutabeko ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuen dibulgazioari buruzkoa.

- **Gizarte-faktorea:** gizartean eta komunitatean duen eragina aztertzen du, besteak beste LANEren oinarritzko hitzarmenen ezarpenari, gizarteratze-/desberdintasun-mailari, aniztasunari, salatzaileen babesgabeziei, giza eskubideen politikari, giza kapitalean egindako inbertsio-mailari eta komunitateei erreparatuz.
- **Gobernantza-faktorea:** enpresen gobernantzan interesa duten alderdien eskubide, erantzukizun eta itxaropenak zehazten dituzten arau eta printzipioak hartzen ditu barne. Eremu horretan aintzat hartzen diren faktoreen artean daude arma polemikoekiko esposizioa, berdintasuna eta aniztasuna, ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako politikak, eta gardentasuna.

Halaber, esan behar da Politikak adierazgarritasun-ikuspegi bikoitzetik³ edo materialtasun bikoitzetik heltzen diola jasangarritasunari:

- **Finantza-adierazgarritasuna:** klima-aldaketak (arrisku fisikoak eta trantsizio-arriskuak) eta gainerako ingurumen- eta gizarte-arriskuek finantza-erakundeen kontuetan edo inbertitzen duten kontrapartidetan izan dezaketen eragina da. Alderdi horrek erakundeen edo kontrapartiden balioari eragiten zaion kaltearen berri eman, eta haien bilakaera, finantza-emaizta eta egoera azaltzen ditu.
- **Ingurumen- eta gizarte-adierazgarritasuna:** erakundeen eta kontrapartiden jarduerak klima-aldaketan, ingurumenean eta gizartean duen eraginari dagokio.

Politika honetan ezarritakoaz gain, Taldeak beste barne-politika eta -prozedura espezifikoko batzuk ditu IGG irizpideak bere jardueran integratzeko. Politikan jasotako printzipioak zehaztasun handiagoz arautzen dira.

1.2. Aplikazio-eremua. Erakunde lotuak

Politika hau **zeharkakoa** da, eta, beraz, une oro aplikatu ahal izango zaie LABORAL Kutxa Taldeko erakundeei. Taldeko area eta sozietate guztiei dagokie, eta, hortaz, euren eguneroko jardueran sartuko dituzte Politikan zehaztutako printzipioak.

Gainera, Taldeko erakunde guztientzako erreferentziatzeko dokumentua da, jardunbiderik egokienak biltzen baititu, eta, beraz, erreferentzia-esparrua izango da Taldean gobernu korporatiboko politikak eta sistemak ezarri eta garatzeko, eta horiek bat etorri beharko dute Politikarekin.

Taldeko erakundeetako gobernu-organismoek beharrezko erabakiak hartu beharko dituzte Politika honetako neurriak txertatzeko, honako hauetan jasotakoarekin bat:

- Ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, Kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 29. artikulua. Haren arabera, administrazio-kontseiluak eskuordetu ezin dituen ahalmenetako bat gobernu korporatiboaren sistemaren eraginkortasuna aldian-aldian zaindu, kontrolatu eta ebaluatzea da. Horretarako, egun dituzten edo etorkizunean sor daitezkeen arriskuak identifikatu, kudeatu, kontrolatu eta jakinarazteko prozedura eraginkorrak ezarri beharko dituzte.

³ Batzordearen jakinarazpena: Txosten ez-finantzarioak aurkezteko jarraibideak: Klimari buruzko informazioari buruzko gehigarria (2019/C 209/01).

- Taldeko erakundeetako kontseiluaren erregelamenduak. Horiek ezartzen dutenez, erakunde bakoitzeko kontseiluaren eskumenetako bat bere erakundeko politika eta estrategia orokorrak zehaztea da.

Politika pixkanaka ezarriko da, eta kontuan hartuko dira, betiere, enpresa-ereduarekin eta Taldeko erakunde bakoitzaren jardurekin lotutako arriskuen motak, eskala eta konplexutasuna, bai eta kasu bakoitzean aplikatu beharreko araudia ere, araudiak berak onartzen duen proportzionaltasun-irizpideari jarraituz.

1.3. Politikaren gobernantza

Politika honen proposamena Jasangarritasun Bulegoak egin du. Eskalatzeak Jasangarritasun Batzordea —Zuzendaritza Kontseiluaren mendekoa— hartu du barne, eta, azkenik, Entitateko Kontseilu Errektoreak onartu du, 2022-02-28ko bilkuran.

Dokumentu hau aldian behin berrikusiko da, Jasangarritasun Politika aldatu behar den aztertzeke.

Politikan aldaketarik egitea erabakitzen bada, Jasangarritasun Bulegoak eguneratze-proposamena aurkeztuko dio Jasangarritasun Batzordeari, hark azter dezan. Azkenik, Kontseilu Errektoreak aztertu eta, hala badagokio, onetsiko du, Entitateko estrategia zehazteko arduradun nagusia den aldetik.

2. ERREFERENTZIA-ESPARRUA ETA PRINTZIOO OROKORRAK

2.1. Erreferentzia-esparrua

Politika hau egiterakoan, jasangarritasunaren arloan Kontseiluak onartutako beste politika orokor batzuetan garatuta ez dauden gaiei dagokienez, honako hauek hartu dira kontuan: alde batetik, Europako Banku Agintaritzak, Aseguruena eta Erretiro Pentsioen Europako Agintaritzak, Europako Banku Zentralak, Espainiako Bankuak, eta Finantza Sistema Ekologizatzeko Banku Zentralen eta Ikuskatzaileen Sareak (NGFSk) egindako gomendioak; eta, bestetik, Balore Merkatuko Komisio Nazionaleko sozietate kotizatuen Gobernu Egokiaren Kodea eta txosten ez-finantzarioak aurkezteko zuzentzarauak (Klimarekin lotutako informazioari buruzko gehigarria).

Halaber, jasangarritasunaren arloko nazioarteko konbentzio eta protokoloetan, jokabide-kodeetan eta nazioartean aplikatzen diren gidetan jasotako jardunbiderik onenak hartu dira oinarri. Horien artean, hauek hartu ditugu aintzat, arreta bereziarekin: Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak, Parisko Ituna, Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak, Inbertsio Arduratsuaren Printzipioak, Aseguruena Jasangarritasunerako Printzipioak, Balioak dituen Banka baterako Itun Globala eta Nazio Batuen Mundu Ituna (Global Compact).

2.2. Jasangarritasunaren printzipio orokorrak

Taldearen Jasangarritasun Planaren Printzipio Orokorren helburua haren negozioa, finantza-zerbitzuak eta eguneroko jarduera IGG irizpideekin bat etor daitezzen lortzea da, irauteko asmoarekin eta interes-taldeekin lankidetzan, betiere. Bat etortze hori jasangarritasunaren arloko jarduketaren printzipio orokor hauetan oinarritzen da:

- **Jasangarritasuneko estrategia** bat zehaztea, epe luzean Taldearen estrategia orokorrarekin, haren identitate kooperatiboarekin eta ikuspegiarekin, xedearekin, balioekin eta konpromisoekin bat datorrena, Taldearen asmoa islatuko duena eta Taldeko erakundeen jardueran jasangarritasuna pixkanaka sartzan lagunduko duena.
- Garapen jasangarria bultzatzea, interes-taldeen parte-hartze proaktiboa sustatuz eta, bereziki, bezeroei ekonomia jasangarriagorako trantsizioa egiten lagunduz, haien beharretara egokitzen diren **finantza-produktuak eta -zerbitzuak** eskainita.
- Jasangarritasunean oinarritutako gobernantza sendo eta gardena sustatzea, estrategia lortu eta interes-taldeentzako epe luzeko balioa sortzeko.
- Negozio-eredua sendotzea, **arriskuaren gestio** zuhur eta orekatu bat oinarri hartuta, jasangarritasunak berekin dituen arriskuak identifikatuz, neurtuz eta eraginkortasunez kudeatuz, adierazgarritasunaren ikuspegi bikoitza kontuan hartuta.
- **Dibulgazioko eta komunikazio gardeneko** jardunbideak ezartzea, interes-taldeen beharrezko informazioa izan dezaten Taldearen bilakaera, emaitzak, egoera eta jardueraren eragina ulertzeko.

Taldeak, bere antolamendu-egituran, jasangarritasunaren kudeaketarekin lotutako zereginak eta erantzukizunak zehaztu ditu, eta Entitateko area guztiek parte hartu izan dute horretan.

2.3. Jasangarritasunaren analisi estrategikoa eta epe luzekoa

LABORAL Kutxak garrantzi handia ematen dio jasangarritasunaren kudeaketari, ondo baitaki zeinen garrantzitsua den jasangarritasuna finantza-sektorearentzat. Gainera, bere nortasun kooperatiboa oinarri duen ikuspegi estrategikoa du, gestioan soilik oinarritutako ikuspegiak alde batera utzita. Hala, Taldearentzat balioa lortzeko, gobernu eta estrategia korporatiboko printzipio egokiak behar dira, eta horiek jasangarritasunaren gestio-esparrua ezartzean agerian jarri. Gizarteari bidezko gizarte- eta ingurumen-aurrerapena izaten etikoki laguntzeko konpromisoa kooperatibaren jatorrizko xedean dauden faktoreetako bat da.

3. JASANGARRITASUNAREN ARLOKO JARDUKETA-ESPARRUA

3.1. Interes-taldeen gestioa

Taldeak harremana du hainbat pertsona, talde eta erakunderekin, eta horien guztien multzoa hartzen du interes-taldetzat. Hiru multzotan sailkatzen ditu:

- Taldearekin transakzio ekonomikoak egiten dituztenak (adibidez, bezeroak, langileak eta hornitzaileak).
- Transakzio ekonomikorik egin ez baina Taldean gizarte- eta ingurumen-ikuspegitik interes handia dutenak (adibidez, GKEak, elkarteak, agintariak eta hedabideak).
- Taldeari aukera berriak hausnartu, birpentsatu eta aztertzen laguntzen dioten ikuspuntu eta ezagutza berriak ematen dituztenak (adibidez, aholkulariak).

Interes-taldeen elkarriketa funtsezkoa da Taldearen jardura eta estrategia garatzeko. Horrenbestez, Politika honen bidez, zenbait printzipio eta konpromiso ezartzen dira, epe luzeko balioa sortzeko interes-taldeentzat.

Kreditu-kooperatiba gisa, LABORAL Kutxaren kapital soziala lan-bazkideen (langileen), bazkide laguntzaileen (langile izandakoen), elkartutako kooperatiben eta gainerako pertsona fisikoen (bazkide bezeroen) artean dago banatuta. Taldeak haien beharrak eta itxaropenak asetzeko egiten du lan, haien artean eskubide- eta betebeharrak berdintasuna bermatuz, edozein direla ere haien parte-hartzea, ezagutzak edo hierarkia-maila. Horiek ez dira interes-talde espezifikoetat hartzen, euren itxaropenak gainerako taldeen barruan sartzen baitira.

A. Plantilla

Plantilla da, bereziki, estrategia betetzeko eragile nagusia eta negozioaren jasangarritasuna bermatzeko giltza. Langileek rol bikoitza dute, langile ez ezik kooperatibako bazkide ere badirelako, eta hori bereizgarria izan da historikoki; izan ere, finantza- eta aseguru-jardura modu jasangarriagoan garatzea ahalbidetu du, «Bada beste modu bat» ikurrizaren arabera. Beraz, Taldeak aurrera egiten jarraituko du ekintza-lerro hauetan:

- Aniztasuna errespetatzea, edozein bereizkeria-mota baztertuz eta berdintasuna sustatuz.
- Langile guztiek jokabide-printzipio eta arau etiko eta arduratsuen arabera jardun dezaten zaintzea, eta Etikaren eta Jokabide Profesionalaren Kodea bete dezaten.
- Langileak gizarte- eta ingurumen-arazoez eta esparru horietako aukerez eta jardunbide egokiez ohartzeko programak sustatzea.
- Langileen gaitasunen garapena sustatzea, prestakuntza integralaren bidez.
- Osasun eta ongizate fisiko eta psikosozialaren etengabeko hobekuntza sustatzea.

B. Bezeroak

Taldearen helburua da **bezeroekin etikan eta konfiantzan oinarritutako epe luzeko harremanak** eraikitzea, bezeroen beharretara egokitzea, haien itxaropenak betetzen dituzten eta bidezko **garapen jasangarria** lortzen laguntzen duten **kalitatezko produktuak eta zerbitzuak** eskainiz, eta **haien gogobetetasun-maila hobetzea, zerbitzuaren kalitatean bikaintasuna lortuz**. Ildo horretan, balio-proposamenak konpromiso hauek ditu oinarri:

Estrategiarekin bat datozen kalitatezko produktu eta zerbitzuak

- o Gizarte- eta ingurumen-alderdiak integratzen dituzten eta pertsona bakoitzaren beharretara eta arrisku-profilera egokituta dauden produktuak eskaintzea.
- o Negozio-eredu jasangarrietarako trantsizioa bultzatzea eta bezeroei trantsizio hori egiten laguntzea, portaera edo jarduketa horiek sustatuko dituen palanka eta eragile gisa jokatzuz, eta, aldi berean, prozesuan pertsonak edo sektoreak atzean ez uzteko betebeharra kontuan hartuz.
- o Finantza- eta aseguru-hezkuntza sustatzea, egungo bezeroei eta izan daitezkeenei finantza-produktu eta -zerbitzuei buruzko informazioa eta beharrezko ezagutza egokiak emateko, informatutako erabakiak har ditzaten.

Arriskuaren gestio eraginkorra eta integrala

- o Bezeroengan eragina izan dezaketen ohiz kanpoko egoerak arretaz aztertzea, haietarako soluzioak aurkitzen saiatzeko, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden edo egon daitezkeen taldeei kasu egitea.
- o Erabaketan, finantza- eta arrisku-irizpideez gain, IGG irizpideak sartzea, Politika honi jarraituz eta jasangarritasunaren ondoriozko arriskuen gestioa jorratzen duten gainerako politiken arabera.
- o Arreta berezia jartzea legez kanpoko jarduketan finantzaketa prebenitzeko eta saihesteko, kapital-zuritzea eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko arauak betez, eta beharrezko neurri osagarriak hartuz.

Epe luzeko harremanak eta bezeroaren gogobetetasuna

- o Gogobetetasunari buruzko inkestak egitea eta bezeroarentzako arreta-zerbitzua indartzea, bezeroek Taldeari buruz zer iritzi duten ulertzeko eta identifikatutako hobekuntza-arloei ekiteko.
- o Bezeroek Taldearen produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten erraztea, kanal anitzeko eskaintza baten bidez, finantza-bazterketari aurre egiteko.
- o Komunikazio gardena eta arduratsua izatea, eta egiazkoa, nahikoa eta egokia den informazioa ematea.
- o Bezeroen datuak modu pertsonalean babestea, datuak babesteko politika etengabe hobetuz eta kontrolatuz.

- o Teknologia eta prozesu berriak (hala nola adimen artifiziala, big data, blockchain teknologia, machine learninga edo sor daitezkeen beste batzuk) ezartzean etikaren eta jasangarritasunaren ikuspegia aintzat hartzea.

C. Hornitzaileak

Hornitzaileak beharrezkoak eta ezinbestekoak dira Taldeak bere zerbitzuak eman ahal ditzan. Era berean, badaki trakzio-gaitasuna duela eta enpresa hornitzaileak bultzatzea gizarte- eta ingurumen-alderdietan gero eta jasangarriagoa den jardueraren bat izatera. Hori dela eta, balio-kate osoan zehar enpresa hornitzaileak hautatu eta kudeatzean jasangarritasun-irizpideak erabiltzen jarraituko dugu: etikan, konfiantzan eta gardentasunean oinarritutako harremanak; tokiko erosketako irizpideak; hautaketan ingurumen- eta gizarte-baldintzak sartzea; haien eragina murrizteko helburuak; giza eta lan-eskubideak betetzea, eta ingurumen-konpromisoak.

Eginkizunak kanporatzeko prozesuak indartuko dira, eta egiaztatuko da hornitzaileak Taldearen eta bere plantillaren jokabidea gidatzen duten irizpideekin bat datozela eta horiek errespetatzen dituztela. Horretarako, alderdi hauek hartuko dira kontuan:

- Hautaketa eta kontratazioa
- Kontrola eta jarraipena

D. Gizartea

Taldearen negozio-ereduak oso lotura estua du komunitatearekin; hori dela eta, bere jardueraren garatzen duen lurraldeetan integrazioa du helburu, eta ekitatea eta **aurrerapen ekonomiko, sozial eta kulturala** sustatzea eta modu proaktiboan bideratzea.

Horrenbestez, Taldeak bere jardueran lortutako soberakinen zati handi bat itzultzen dio gizarteari, interes ekonomiko, sozial eta kulturalerako proiektuak finantzatzuz, prestakuntza emanez eta enplegua sortuz. Egindako ekimenen artean, Taldeak Mondragon Korporazioan ekonomia soziala eta kooperatiboa sustatzeko hartutako konpromisoa nabarmentzen da.

Horrenbestez, Taldeak bere jardueran lortutako soberakinen zati handi bat itzultzen dio gizarteari, interes ekonomiko, sozial eta kulturalerako proiektuak finantzatzuz, prestakuntza emanez eta enplegua sortuz. Egindako ekimenen artean, Taldeak Mondragon Korporazioan ekonomia soziala eta kooperatiboa sustatzeko hartutako konpromisoa nabarmentzen da.

3.2. Jasangarritasunaren arloko jarduketak-guneak

Legeria, erregelamenduak eta arauak betetzeaz gain, bere gizarte- eta ingurumen-errendimendua hobetu nahi du Taldeak, eta beste erakunde batzuentzat erreferentzia izan. Beraz, konpromiso hauek ezartzen ditu esparru horietan:

- Taldeko erakundearen estrategian honako hauek aintzat hartzea: GJHek, Klima Aldaketari buruzko Parisko Itunak, Finantza Jasangarrien Europako Batzordearen Ekintza Planak, Aseguruaren Printzipio Jasangarriak eta Europako Itun Berdeak emandako printzipioak.

- Etika-, ingurumen- eta gizarte-gogoetak kontuan izatea negozio-erabaki guztietan zein produktu, zerbitzu eta eragiketa guztietan, adierazgarritasun-ikuspegi bikoitzetik inpaktu negatiboa murriztu eta inpaktu positiboa maximizatzeko.
- Jasangarritasunak berekin dituen aukerak aprobetxatzen lagunduko duten gizarte- eta ingurumen-produktuak garatzen jarraitzea.
- Ingurumen- eta gizarte-arriskuak kudeatzeko irizpideak diseinatzea, arrisku horiek identifikatu, kuantifikatu eta kudeatzeko beharrezko prozedura, adierazle eta tresnak zehazteko.
- Gobernantza onaren jardunbideekin jarraitzea, gestio-egiturei eta interes-taldeekiko harremani dagokienez.
- Interes-taldeetan ingurumen-kontserbazioari, berdintasunari eta finantzei buruzko prestakuntza eta arlo horiekiko sentsibilitatea sustatzea, ezagutzak eta jardunbiderik onenak partekatuz.

4. GOBERNU KORPORATIBOA: ZEREGINAK ETA ERANTZUKIZUNAK

LABORAL Kutxa Taldeak konpromiso sendoa du jasangarritasunarekin. Horretarako, gobernu-eredu bat diseinatu du, goi-zuzendaritza inplikaturik egotea eta ukitutako langile guztiek ezagutzea bermatzen duena, eta Entitateko eta Taldeko erakundeetako area guztietan jasangarritasunaren zeharkakotasuna aurreikusten duena.

Politika honek ukitutako areetako arduradunek, nor bere erantzukizuneko esparruan eta dagokionean, hura betetzeko beharrezko baliabideak, sistemak eta antolamendua jarriko dituzte.

4.1. Kontseilu Errektorea

Estrategiaren azken arduraduna da, eta, besteak beste, arriskuei erreparatu eta haiek gainbegiratu behar ditu. Hala, jasangarritasunaren arloan, Politika hau eta etorkizunean egin daitekeen aldaketa oro onartzeko ardura du. Gainera, beharrezko informazioa jaso beharko du, jasangarritasun-estrategiaren ezarpenaren eta hari lotutako arriskuen jarraipen egokia egiteko.

Estrategiak honako hauek hartzen ditu barne, besteak beste:

- Marka eta estrategia (Green ambition).
- Arriskuen eta kapitalaren gestio-eredua.
- Komunikazio-politika bezero eta inbertitzaileentzat.
- Negozio-prozesuak berriro diseinatzea.
- Inbertsio-erabakiak.
- Produktu eta zerbitzuen katalogoa: lehendik dauden produktu eta zerbitzuak egokitzea, eta berriak sortzea.
- Antolamendu-eredua (printzipio eta eredu operatibo berriak sortu eta asimilatzea).

Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko Kontseilu Errektorea arlo horretako araudiak eta Taldean Politika honek ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatzeko azken arduraduna izango da. Politika behar bezala aplikatzen ez bada, Kontseilu Errektoreak beharrezko neurriak hartuko ditu. Horretarako, behar adina baliabide eman beharko dizkio Entitateari, jasangarritasunaren arloan dagozkion betebeharrak bete ditzan. Betebehar horien betetze-mailaren inguruan gorabeherarik badago, Entitateko gainerako areek horren berri emango diote Kontseilu Errektoreari une oro.

Estrategia, politikak, arau-eskakizunak, gainbegiraleen aurreikuspenak eta urteko plana betetzen direla bermatzeko, deskarguak jasoko ditu, hiru hilean behin gutxienez, eta, Gestio Planaren barruan, Jasangarritasun Plana onartuko du.

Kontseilu Errektoreak eginkizun eta erantzukizun hauek ditu jasangarritasunari dagokionez:

- Jasangarritasun-estrategia eta arriskuarekiko grina zehaztea.
- Taldeak jasangarritasunaren arloan duen jarrera estrategikoa kudeatzea.
- Garatutako jasangarritasun-politika berriak onartzea, bai eta Taldeak jasangarritasuna txertatzeko aldatutako politikak ere.
- Jasangarritasunaren arloko gobernantza-egitura aldatzea (batzordeak sortzea, eginkizunak eta erantzukizunak esleitzea, eta abar).
- Jasangarritasunaren arloan ibilbide-orria ezartzen dela gainbegiratzea.
- Barne-kontrolak gainbegiratzea, jasangarritasunaren ondoriozko arriskuak identifikatu, neurtu eta kudeatzeko.
- Informazio ez-finantzarioari buruzko txostenak onartzea.
- Ziurtagiriak eta membershipak kudeatu eta haiei buruz erabakitzea.
- Kontseiluak jasangarritasunarekin duen konpromisoaren berri ematea, barne- zein kanpo-mailan, eta lortutako aurrerapenei buruzko informazio gardena ematea.

4.2. Arrisku Batzordea (jasangarritasun-arriskuen gestioa)

Jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren arriskuei zein haien integrazioari eta azterketari buruzko alderdi espezifikoa Arrisku Batzordearen erantzukizunen barruan daude. Jasangarritasun-arriskuen inguruko jarduketa-eremua duela gutxi sortu da. Horrez gain, arrisku horiek zenbait ezaugarri bereizgarri dituzte, eta, hori dela eta, oso zailak dira baloratzen. Taldearen asmoa haiei buruzko ezagutza pixkanaka hobetzea da, eta behar bezala txertatzea.

Zuzendaritza guztietan, arrisku horiek kudeatu eta kontrolatzeko antolamenduaren eskema hiru babes-lerrotan oinarritzen da. Lerro horietan, ardura duten areek ingurumen-, klima- eta jasangarritasun-arriskuak kudeatzen dituzte, erantzukizun bereizien ikuspegitik. Hona hemen lerrook:

- Lehen lerroa. Ardura duten areak eta Jasangarritasun Bulegoa.
- Bigarren lerroa. Arriskuaren Kontrol Globala, Araudia Betearazteko Departamentuaren eta Aholkularitza Juridikoaren laguntzarekin.
- Hirugarren lerroa. Barne Ikuskaritza.

Entitateak aurrera egingo du jasangarritasun-arriskuen integrazioan eta gestioan.

4.3. Jasangarritasun Batzordea

LABORAL Kutxako Zuzendaritza Kontseiluaren eginkizunetako bat jasangarritasun-estrategia baten ezarpena bultzatzea da. Horretarako, Jasangarritasun Batzordea diseinatu du, organo espezializatu gisa.

Batzorde hori arduratuko da Kontseilu Errektoreak zehaztutako estrategia eta gestio-planak gauzatzen direla bermatzeaz. Horretarako, martxan dauden ekintzen jarraipena egin eta behar diren neurriak hartuko ditu, Entitatea egokitu dadin estrategian finantza jasangarriei dagokienez zehaztutako posizionamendura.

Zuzendaritza Kontseiluko eta Jasangarritasun Bulegoko kideak egongo dira batzorde horretan. Gainera, unean-unean jasangarritasunarekin zerikusia duten alderdien zuzeneko gestioan parte hartzen duten Entitateko pertsonak ere Batzordean parte hartu ahal izango dute, eta horretarako gonbit egingo zaie.

Hauek dira Jasangarritasun Batzordearen jarduketaren eremu nagusiak:

- Taldeko jasangarritasun-estrategia proposatzea Kontseilu Errektoreari.
- Taldearen jardueran jasangarritasuna txertatzeko erabakitako ibilbide-orria ezartzea.
- Batzordeen arteko koordinazioa bideratzea, ibilbide-orriaren benetako garapena lortze aldera.
- Ibilbide-orrian adierazitako eremuekin lotutako mugarrak eta xedek ezartzea, errendimenduari buruzko funtsezko adierazleak zehaztuz eta horien jarraipena eginez.
- Politikaren, gertaeren jarraipenaren eta merkatu-joeren artean loturak ezartzea.
- Ekintza-planak egitea.
- Kanpoko mehatxu, aukera eta gertaera garrantzitsuen jarraipena egitea.
- Jasangarritasunaren arloko merkatu-jardunbiderik onenen jarraipena egitea.
- Taldeak bere interes-taldeei helarazi nahi dien mezuari ondoen egokitzen zaizkion nazioarteko ekimenak eta estandarrak identifikatzea, baita horietan jarduteko proposamena ere.
- Taldearen jasangarritasunaren eta jardueraren arloan etorkizunean egon daitezkeen arau-eskakizunak identifikatzea eta horiek betetzeko proposamena garatzea.
- Jasangarritasuna txertatzeko prozesuan etengabeko hobekuntza bultzatzea.
- Taldearentzako garapen-aukera berriak proposatzea, finantza- eta aseguru-jarduerari lotutako jasangarritasunaren arloan.
- Jasangarritasunaren arloko politikak aldatzea edo gainbegiratzea proposatzea.
- Kontseilu Errektoreari informatutako orientabideak ematea arlo horretan mahaigaineratutako gaien inguruan.

Batzordeari bere eginkizunak betetzen laguntzeko, Jasangarritasun Bulegoak koordinatuko du jasangarritasunaren jarraipena egiteko dokumentazio arrunta. Dokumentazio hori Batzordeko kideen eskura egongo da lankidetzaren ingurune seguru batean, Entitatearen intranetean.

Batzordeak lau ohiko bilkura izango ditu urtean. Dena den, ohiz kanpo bilkurak ere egin ditzake, hala irizten bazaio.

Azkenik, Politika honi dagokionez, Jasangarritasun Batzordeak, Jasangarritasun Bulegoaren bidez, Kontseilu Errektorera helaraziko du Jasangarritasun Politika onartzeko eta/edo aldatzeko proposamena, baita horrekin lotutako erabaki estrategikoak ere.

4.4. Jasangarritasun-taldea

Jasangarritasun-talde bat sortu da, Taldearen finantza-jardueran jasangarritasuna txertatzeko ibilbide-orria garatu dezan epe laburrean.

Taldeko area hauetako arduradunak eta Jasangarritasun Bulegokoak dira jasangarritasun-taldeko kide: Negozioa, Araudia Betearaztea, Arriskua, Arriskuaren Kontrol Globala eta Komunikazioa.

- Jasangarritasun-estrategian abiarazi beharreko ekintza berriak proposatuko ditu, baita Gestio Planeko lerroak ere.
- Jasangarritasun-taldearen bileretan, Jasangarritasun Planaren ezartze-prozesuan lortutako aurrerapenen deskargua egingo da.
- Jasangarritasun Batzordeari eta Kontseilu Errektoreari jakinarazi beharreko KPlak emango ditu.
- Jasangarritasun Batzordeak eskuordetuta, behar diren ekintzak gauzatzeko ardura izango du.
- Zeharkako proiektuak martxan jartzeko berariazko lantaldeak sortuko ditu.

4.5. Jasangarritasun Bulegoa

Jasangarritasun Bulegoa sortu da, eta honako funtzio hauek ditu:

- Jasangarritasunaren arloko ekimenei ikuspegi orokorra, koherentzia eta zentzua ematea, Taldearen estrategiarekin bat.
- Plan zuzentzailearen eta urteko Gestio Planaren ildo nagusiak zehazten laguntzea.
- Ekintza-lerro eta helburu berriak proposatzea.
- Lantaldeak, jasangarritasun-taldea eta ibilbide-orriaren eta urteko Gestio Planaren ezarpena dinamizatu, koordinatu eta horren jarraipena egitea.
- Area guztiei zerbitzua, sentsibilizazioa eta laguntza ematea, ezarritako helburuak lortzeko eta politika, prozesu, produktu eta zerbitzuetan jasangarritasuna zeharka txertatzeko.
- Arriskuaren Kontrol Globalarekin koordinatuta, jasangarritasun-arriskuak kontrolatzea eta haien jarraipena egitea.
- Jasangarritasun Batzordeko idazkaritza teknikoaz arduratzea.
- Jasangarritasunarekin lotutako barne- eta kanpo-elkarrizketa gauzatzea.
- Jasangarritasunaren dibulgazioa/txostena, eta horrekin lotutako barne-komunikazioa.
- Prospekzioa eta zaintza jasangarritasunaren arloan.

4.6. Jasangarritasunari buruzko informazioa eta txostena

Taldeak erabateko gardentasuna lortu nahi du jasangarritasunaren arloan, interes-taldeek Taldearen konpromisoa behar bezala ezagutu eta arlo horretan dituzten itxaropen eta lehentasunekin bat datorrela egiazta dezaten. Horretarako, jasangarritasunari buruzko atal berezi bat dago webgune korporatiboan. Hain zuzen, horretan argitaratuko da Politika hau.